

gorievitxek abandonaturiko zirkasiar lorategi eta hilerriekin topo egin ohi zuten Errusiako zelai eta errepedeetan. Behin, maiz ematen zituen paseoetako batek etxera bueltan, negar betean hasi zen. «Basoko eremu erdi ilunean, norbait kekuka ari zela ematen zuen; zirkasiar artzainen ahotsak edo haur txikien negarrik entzuten ari zen irudipena zeukan». Aitari azalpenak eskatu zizkion behin, eta terrore estalinista azaltzeko Errusian maiz erabilitako esamoldearekin erantzun zion hark –kasu honetan, Kaukasoren kolonizazioari aplikatuta–: «Baso bat azken zuhaitzera arte moztzen duzunean, ezpalek hegan egiten dute». Hots, zirkasiarren biktimizazioa kalte onargarria izan zen errusiar eta, ondoren, sobietar inperioren loria ziurtatze aldera.

Gulagetik itzuli berritan, izurritik osatu bai baina oraindik kutsagarria den norbait bezala dabil nobelako protagonista

Inperioko jazartzaileen ondorengoa da protagonista hori, eta barne indarkeriaren biktima bihurtzen da

Kolonian igarotako haurtzaroz hausnartzen ari dela, iraganaren lotsa sentitzen du Ivan Grigorievitxek, eta, etorkizunari begira, hondamendiak aurreikusten ditu. Errusia modernizatzeo saiakera orok –Pedro Handiaren, Katalina Handiaren, Leninen zein Stalinen eskutik–, askatasuna zabaldu beharrean, esklabotza areagotu egin du, haren aburuz, eta ez dio ziklo biziotsu horri amaierarik ikusten. Erruduntasun politikoaren, nostalgia sentimentalaren eta pentsaera politiko ezkorren arteko nahasketa ohikoa da kolonietan hazitako pentsalarien haurtzaroko oroitzapenetan.

Etnikoki errusiarra, estalinismoaren biktima, eta kolonoa zirkasiar lurraldean; Ivan Grigorievitxek bizipenak Hannah Arendt-ek *boomerang efektua* deiturikoaren adibide dira: inperioko jazartzaileen ondorengoa barne indarkeriaren biktima bihurtzen da. Efektu horretan sakonduz, Ivan Grigorievitxek Kaukasora itzultzea erabakitzen du, eta ikusten familia etxea jadanik ez dela existitzen.

Memoria leku horretan amaitzen da nobela; zirkulua itxeko baino gehiago, hura zabaltzeko asmoz.

Hitzek min

Irati Majuelo

Miñan. Hitz horrek «anaia edo arreba txikia» esan nahi du pularrez, fula etniaren hizkuntzan. Etnia horren parte da Ibrahim Balde, liburu honen egilea. Egilea da Amets Arzallus ere. Kontrazalean dioten gisan, Ibrahimak ahoz idatzi baitu bere historia, eta Ametsek, eskuz. Nabari da, baina, Ibrahimaren bizitza dela liburuak kontatzen duena, edo Ibrahimak berak kontatzen duela liburuak. Ametsek euskara izan balu bezala, hendiarraren eskua nekez antzematen baita, edo ez behintzat itzultzaile on bati igaritzen zaiona baino gehiago.

Larrimina. Angustia du liburu honek abiapuntu: 13 urte zituela aita galdu, lan bila hasi, eta anaia gaztea desagertzean haren bila abiatutako bidaia azaltzen baitu. Eta hala gurutzatzen ditu Ginea, Mali, Aljeria eta Libia. Eta hala gurutzatzen ditu irakurleak ere, Afrikako mapak eta herrialde



‘Miñan’

Idazleak: Amets Arzallus Antia, Ibrahim Balde.
Argitaletxea: Susa.

bakoitzaren bereizgarriak arrotzak izanda ere, ezagun, sentigarri eta mingarri bihurtzen baitira kontalariaren hitzetan. Egonezina du abiapuntu eta bidaide, eta halaxe heltzen da larrimin hori, umil bezain zuzen, irakurlearen bihotzera.

Azalmina. Barrua mugitzen duten liburu horietakoa da, epeluzten ez zaituen horietakoa. Bereziki gustatu zait, gure azal zuriak sekula bizi behar izan ez dituenak bizi arazten dizkigulako. Baina ez itsasoaren alde honetatik izaten dugun begirada estereotipatutik, ez migranteei buruzko diskurtso homogeneizatutik. Lehen pertsonan eta zintzotasun osoz mintzo da Ibrahim. Hurrengo egunean esnatuko ote den ez dakienaren gerdantzen: «Iluna puskatzen hasi du. Begi bat irekitzen duzu. Bizirik zaude».

Oroimina. Ez nostalgia, baizik eta oroitzeko mina. Bizi izandakoa kontatzearen ariketak dakartzan minak eta nekeak plasmatzen dira kontakizunean bertan, irakurleari gogoraraziz ez dela fikzioa irakurtzen ari dena, baizik eta bizitza bat. «Zu orain hemen zaude, entzuten, baina ni han nago, nire haragiaren barruan, eta kontatzen dudanean

berriz ere bizi dut esplikatzeko ari naizen guztia». Era berean, ahaztu ezinaren mina azalera-tzen du, Europan bizi duen mugimendurik ezaz eta horrek sortzen duen ezinegonaz. Izan ere, Ibrahimaren uestez, burua armairu bat bezalakoa da, eta armairutik gauza bat ateratzeko, bertan beste gauza bat sartu behar duzu. Euskal Herrian bizi duenari buruzko hausnarketa bakantekoa da, baina aski, bertako irakurleok gauza asko planteatu ditzagun: «Baina nik, hemen, nire asiloaz erabakitzen duten bitartean, ez dut ezer egiten. Ez daukat lanik, ez daukat lagunik eta ez daukat armairuan sartzeko ezer. Nire oroitzapenak hor daude, mugitu gabe. Eta egunero atakutzen nauten».

Bizimina. Egileak zintzoki azaltzen du, Afrikan dena ez da kantua eta irri. Europara heldu nahi ez, eta hala ere Europarako bidean, gosea, tortura, esklabotza, irainak, egarria, kolpeak, arrazismoa jasan ditu. Bizimina ere galdu izan du bidean. Eta hala ere, segi. Eta hala ere, bizi. Ibrahimak lezio asko ematen dizkigu liburu txiki batean: «Bizitza hola da, eta ezin duzu inoiz esan: nik inork baino gehiago sufritzen dut».

Asteburu pasa, aitonarekin

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburu bila, alea eta lastoa bereizteko ahaleginetan gabiltzanean, komeni da literatur sariketarik jarraitzea, dena belusezko jantziaren eskaintzen den garaiotan. Euskal Herrian Etxepare saria da dugun bakanetako, eta, beraz, adi jarraitu beharrekoa.

Aurtengo irabazlea 36 orrialdeko album etzan bat izan da (22x25 zentimetro; zabaldua metro erdi hartzen du). Tapa gorreko edizio txukunean dator. Barruan zer aurkituko dugun, azalak oso ongi irudikatzen du: aitonaren eta bilobaren arteko harremana, onarpen eta elkar-

berasteko bide bezala. Kalitate handiko obra bat iruditu zait, generoaren balibideak ederki erabiltzen jakin duena.

Irakurri aurretik izan nuen inpresioa ez zen oso baikorra izan: album naif baten aurrean nengoela iruditu zitzaidan, gauza gutxi esaten duen sorkuntza estetiko



‘Etxe honetan’

Idazlea: Aintzane Usandizaga.
Ilustratzailea: Asier Iturralde Gaston.
Argitaletxea: Pamiela.

ongi zaindua baino ez. Irakurtzen hasita, ordea, oso bestelakoa izan zen eragin zidan sentipena. Zuritasun eta sotiltasun hartan, orritz orri, irakurraldi partekatu irragarri bat irudikatu nuen, aberasgarria ere bai. Batzuetan, lehen irakurraldia egin ahala buru-bihotzetan eragiten didana errazki ikusten badut ere, oraingoan ez da hala izan.

Hurrengo irakurraldietan artefaktu literario aski landua dela iruditu zait, barne mekanika trinkoarekin, beste behin ere frogatuz azalez sinplea dena lanketa arretatsuaren emaitza izan ohi dela. Baina ez izutu nire hausnarketa hauekin. Liburu hau lasai eta ongi pasatzeko irakur ezazu, ondoan duzun haurrarenkin.

Hala ere, iruditzen zait ongi etorriko zaizula azalpen batzuk gogoan izatea. Kontziente izan, ala ez, irakurketa osatzeko hiru eragileren partaidetza gertatzen dela: testua, irudia eta irakurlearen irudimena.

Has gaitzen letretatik: testua minimoa da. Ez da iristen orrialde bakoitzeko esaldi bat izatera, batez beste. Narratzailea haur protagonista izanik, sinesgarria egiten da bere ahotsak duen

parte hartzeko modua, laburra, sotila. Bestelako irakurketetarako irekia, baina. Ondorioz, haurraren pentsamenduak irragarriak dira, irudiekin sortzen dituen kontrasteetan.

Irudiak, aldiz, irakurlearen begirada du, plano orokorrekin gehienetan. Bere (gure) aurrean gertatzen da istorioa. Eta musikalitate porrokatu baten etxea erretratatzan denez, bertan dauden erreferentziak –Led Zepelin, Eric Clapton, Akelarre, Itoiz–, irakurle helduari keinuka ari dira, bai ala bai.

Eta, hirugarrenik, irakurlearen parte hartzea dago: liburu hau interpretazio jolas handi bat delako, elkarriketa bilatzen duena haurraren (testua) eta helduaren (irudia) artean. Muntza handiko kontua hau, «irakurketa partekatuari» buruz teorizatzen dutenen artean irudimen ariketak eragiten dituzten testuak direlako bikainak, idealak.

5 urtetik aurrerako irakurleei proposatzen zaien obra da, baina irakurle adintsuagoak erraz erakarriko dituen, marrazketaren eitegatik eta darabilen umoreagatik.